# BASES DE LA CONVOCATORIA DE MOVILIDAD ERASMUS+ PARA ESTUDIANTES DE LA UNIVERSIDAD EUNEIZ

## Curso académico 2026/2027

### 1. Objeto de la convocatoria

La presente convocatoria tiene por objeto regular el procedimiento de selección de estudiantes de la Universidad EUNEIZ para participar en el Programa Erasmus+ de movilidad para estudios durante el curso académico 2026/2027, en universidades socias de países participantes en el programa Erasmus+.

### 2. Destinatarios y requisitos de elegibilidad

Podrán participar en esta convocatoria los estudiantes que cumplan los siguientes requisitos:

1. Estar matriculados en la Universidad EUNEIZ en una titulación oficial de Grado durante el curso académico 2025/2026.
2. Haber superado al menos 60 créditos ECTS en el momento de presentar la solicitud.
3. Acreditar un nivel mínimo de idioma exigido por la universidad de destino (según convenio o, en su defecto, nivel B1 del MCER en la lengua de docencia).
4. No haber disfrutado previamente de una estancia Erasmus+
5. Estar al corriente de las obligaciones académicas y administrativas con la Universidad EUNEIZ.

### 3. Duración y características de la movilidad

- La movilidad podrá tener una duración de uno o dos semestres, según las plazas ofertadas y los convenios bilaterales vigentes.
- Las estancias deberán realizarse entre septiembre de 2026 y junio de 2027, conforme al calendario académico de la universidad de destino.
- Antes del inicio de la movilidad, el estudiante deberá formalizar un Acuerdo de Estudios (Learning Agreement) que garantice el reconocimiento académico de las asignaturas cursadas en destino.

### 4. Criterios de selección y baremo

La selección de candidatos se realizará en régimen de concurrencia competitiva, de acuerdo con los siguientes criterios y ponderaciones:

| Criterio | Descripción | Ponderación | Puntuación Máxima |
|---|---|---|---|
| **Expediente académico** | Nota media ponderada del expediente hasta la fecha de solicitud | 50 % | 10 puntos |
| **Carta de motivación** | Claridad, coherencia y madurez del proyecto académico y personal de movilidad | 30 % | 6 puntos |
| **Competencia lingüística** | Nivel acreditado de idioma de la universidad de destino (MCER) | 20 % | 4 puntos |
| **TOTAL** | | 100 % | **20 puntos** |

**Detalle del baremo:**

- **Expediente académico:**
  - 10 puntos = nota media ≥ 9,0
  - 8 puntos = 8,0 – 8,99
  - 6 puntos = 7,0 – 7,99
  - 4 puntos = 6,0 – 6,99
  - 2 puntos = 5,0 – 5,99
- **Carta de motivación:**
  Evaluada por la Comisión de Movilidad, valorando la motivación personal, la adecuación académica de la estancia y la coherencia con los objetivos del programa.
- **Idioma:**
  - Nivel C1 o superior: 4 puntos
  - Nivel B2: 3 puntos
  - Nivel B1: 2 puntos
  - Nivel inferior o sin acreditación: 0 puntos

En caso de empate, se priorizará la mejor nota media; si persiste el empate, la valoración de la carta de motivación.

**5. Solicitudes y documentación**

Las solicitudes deberán presentarse enviando toda la documentación requerida al correo electrónico del Área de Movilidad Internacional de EUNEIZ: **international@euneiz.com**, entre el 9 de diciembre de 2025 y el 16 de febrero de 2026, inclusive. Después de esta fecha no se admitirá ninguna solicitud.

**Documentación requerida:**

- Formulario de solicitud cumplimentado.
- Expediente académico actualizado.
- Carta de motivación (máx. una página).
- Acreditación del nivel de idioma (certificado oficial o prueba interna).
- 1 foto de carnet

**6. Comisión de selección**

La Comisión de Movilidad Internacional de EUNEIZ será responsable de la valoración de las solicitudes, la elaboración de los listados provisionales y definitivos, y la asignación de las plazas de destino.

**7. Obligaciones de los estudiantes seleccionados**

Los estudiantes seleccionados deberán:

1. Firmar el Compromiso de Participación y el Acuerdo de Estudios (Learning Agreement) antes del inicio de la movilidad.
2. Cumplir los procedimientos administrativos exigidos por EUNEIZ y la universidad de destino.
3. Presentar, al finalizar la estancia, la certificación de estancia, el transcript of records y la prueba final de idioma (OLS, si aplica).
4. Participar en las sesiones informativas y de orientación organizadas por el Área de Movilidad Internacional.

**8. Financiación**

Los estudiantes seleccionados podrán optar a una ayuda económica Erasmus+, financiada por la Unión Europea y gestionada por la Universidad EUNEIZ. Se financiarán hasta un máximo de cuatro 4 meses para las movilidades de un cuatrimestre y hasta un máximo de siete meses para las movilidades de curso completo. Las ampliaciones de estancia irán con beca cero. Los estudiantes podrán optar a otras ayudas que serán compatibles con la ayuda del programa Erasmus +.

**9. Aceptación de las bases**

La presentación de la solicitud implica la aceptación íntegra de las presentes bases, de la normativa Erasmus+ vigente y de las condiciones establecidas por la Universidad EUNEIZ.

**ERASMUS+ MUGIKORTASUN-DEIALDIAREN OINARRIAK EUNEIZ UNIBERTSITATEKO IKASLEENTZAT**

**2026/2027 ikasturtea**

**1. Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea EUNEIZ Unibertsitateko ikasleen hautaketa-prozedura arautzea da, Erasmus+ programaren ikasketetarako mugikortasunaren baitan, 2026/2027 ikasturtean, Erasmus+ programako herrialde parte-hartzaileetako unibertsitate elkartuetan parte har dezaten

**2. Partehartzaileak eta baldintzak**

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintzak betetzen dituzten ikasleek:

- 2025/2026 ikasturtean EUNEIZ Unibertsitatean gradu ofizial batean matrikulatuta egotea.
- Gutxienez 60 ECTS kreditu gaindituta izatea eskaera aurkezteko unean.
- Helmugako unibertsitateak eskatutako hizkuntza-maila egiaztatzea (hitzarmenaren arabera edo, bestela, irakaskuntzako hizkuntzan B1 maila gutxienez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera).
- Aurretik Erasmus+ egonaldi baten onuradun ez izatea.
- EUNEIZ Unibertsitatearekiko betebehar akademiko eta administratiboetan egunean egotea.

**3. Mugikortasunaren iraupena eta ezaugarriak**

Mugikortasunak lauhileko edo bi lauhilekotako iraupena izan dezake, eskainitako plazen eta indarrean dauden hitzarmenen arabera.

Egonaldiak 2026ko irailaren eta 2027ko ekainaren artean egin beharko dira, helmugako unibertsitatearen egutegi akademikoari jarraikiz.

Mugikortasuna hasi aurretik, ikasleak Ikasketa Akordioa (Learning Agreement) sinatu beharko du, atzerrian egindako ikasketen balio akademikoa bermatzeko.

**4. Hautaketa-irizpideak eta baremoa**

Hautagaien hautaketa lehiaketa irekiaren bidez egingo da, ondorengo irizpide eta ponderazioak kontuan hartuta:

| Irizpidea | Deskribapena | Ponderazioa | Gehienezko puntuazioa |
|---|---|---|---|
| Ikasketa-espedientea | Eskaera egin arteko batez besteko nota ponderatua | 50 % | 10 puntu |
| Motibazio gutuna | Proiektu akademiko eta pertsonalaren argitasuna, koherentzia eta heldutasuna | 30 % | 6 puntu |
| Hizkuntza-gaitasuna | Helmugako unibertsitateko hizkuntzan egiaztatutako maila (MCER) | 20 % | 4 puntu |
| **GUZTIRA** | | **100 %** | **20 puntu** |

**Baremoaren xehetasunak:**

- **Ikasketa-espedientea:**
  - 10 puntu = batez besteko nota ≥ 9,0
  - 8 puntu = 8,0 – 8,99
  - 6 puntu = 7,0 – 7,99
  - 4 puntu = 6,0 – 6,99
  - 2 puntu = 5,0 – 5,99
- **Motibazio gutuna:**
  Mugikortasun Batzordeak ebaluatuko du, motibazio pertsonala, egonaldiaren egokitasun akademikoa eta programaren helburuekin koherentzia aztertuz.
- **Hizkuntza:**
  - C1 edo goragokoa: 4 puntu
  - B2: 3 puntu
  - B1: 2 puntu
  - Maila baxuagoa edo egiaztagiririk gabe: 0 puntu

Berdinketarik egonez gero, batez besteko notarik onenak izango du lehentasuna; berdinketa horrek jarraitzen badu, motibazio gutunaren balorazioa kontuan hartuko da.

**5. Eskaerak eta dokumentazioa**

Eskaerak EUNEIZeko Nazioarteko Mugikortasun Arlora bidali beharko dira posta elektroniko bidez (**international@euneiz.com**) 2025eko abenduaren 9etik 2026ko otsailaren 16era bitartean, biak barne. Data horren ondoren, ez da eskaerarik onartuko.

**Beharrezko dokumentazioa:**

- Eskaera inprimakia behar bezala beteta.
- Eguneratutako ikasketa-espedientea.
- Motibazio gutuna (gehienez orrialde bat).
- Hizkuntza-mailaren egiaztagiria (ziurtagiri ofiziala edo barne-proba).
- Argazki bat (tamainaz txartel argazkia).

**6. Hautaketa-batzordea**

EUNEIZeko Nazioarteko Mugikortasun Batzordea izango da eskaeren balorazioaren, behin-behineko eta behin betiko zerrenden eta helmugako plazen esleipenaren arduraduna.

**7. Hautatutako ikasleen betebeharrak**

Hautatutako ikasleek honako betebeharrak izango dituzte:

- Parte-hartze Konpromisoa eta Ikasketa Akordioa (Learning Agreement) sinatzea mugikortasuna hasi aurretik.
- EUNEIZek eta helmugako unibertsitateak eskatutako prozedura administratiboak betetzea.
- Egonaldia amaitzean, egonaldiaren ziurtagiria, ikasketa-ziurtagiria (transcript of records) eta azken hizkuntza-proba (OLS, hala badagokio) aurkeztea.
- Nazioarteko Mugikortasun Arloak antolatutako informazio eta orientazio saioetan parte hartzea.

**8. Finantzaketa**

Hautatutako ikasleek Erasmus+ programa bidezko laguntza ekonomikoa jaso ahal izango dute, Europar Batasunak finantzatua eta EUNEIZ Unibertsitateak kudeatua.
Lau hilabetera arte finantzatuko dira lauhileko egonaldiak, eta zazpi hilabetera arte ikasturte osokoak.
Egonaldiaren luzapenak “bekarik gabe” izango dira (beka zero). Ikasleek beste laguntza batzuk jaso ahal izango dituzte, Erasmus + programaren laguntzarekin bateragarriak izango direnak.

**9. Oinarriak onartzea**

Eskaera aurkezteak esan nahi du ikasleak deialdi honen oinarri guztiak, indarrean dagoen Erasmus+ araudia eta EUNEIZ Unibertsitateak ezarritako baldintzak osorik onartzen dituela.